

# GARAPEN KONTZEPTUARI BURUZKO EZTABAIDA

Eduardo Bidaurrezaga Aurre

EHUko irakaslea

**Laburpena:** Lan honek garapen hitzaren inguruan historian zehar egin diren interpretazio eta teoria desberdinen bilduma osatu nahi du, azken aldian eztabaida honetan eman diren norabide aldaketa eta birformulazioen garrantzia agerian utziz. Teoriaren arloan eman den bilakaera honek praktika mailan izan ditzakeen abantaila eta ekarpenen eragina ere azpimarratzen da artikulu honetan.

**Resumen:** Este trabajo pretende ofrecer una recopilación de las diversas interpretaciones y teorías que sobre el concepto de desarrollo se han dado a lo largo de la historia, destacando las reformulaciones y transformaciones surgidas más recientemente. Las aportaciones y repercusiones positivas que esta evolución en el ámbito teórico pueden suponer en la práctica son también subrayadas en el texto.

Herrialde aberats eta pobreen ezaugarriak, batzuk eta besteek bizi duten egoera, eta euren arteko aldeaz hitz egiterakoan, sarritan “garatu” edo “azpigaratu” berbak datozkigu burura. Kontzeptu hauek erabiltzerakoan ohiturak ematen duen naturaltasunaren eraginez, hauen atzean egon daitezkeen esanahi eta ideiez ez gara askotan ohartzen. Izan ere, normalean konturatzen ez bagara ere, sarritan izaten ditugun estereotipo, aurreiritzi eta ideia sinpleak oso arriskutsuak izan daitezke honen inguruko analisiak egiterakoan. Horrexegatik, jarraian datorren azterketaren helburu nagusia gaur egun bizirik dagoen garapenaren inguruko eztabaidaren garrantziaz eta beharraz irakurlea ohartaraztea izango litzateke.

## 1- Garapena definitzeko lehenengo ahaleginak

Analisi teorikoetan sartzea, batzuen esanetan, denbora galtzea izan arren, garapen kontzeptuari buruzko gogoeta egitea gaur egun geroz eta beharrezkoagoa kontsideratzen da hainbat adituen ustez, hausnarketa honek garapenerako lankidetzaren edo ekonomi politikaren alorretan, adibidez, eragin zuzena izan dezakeelako garapena zer den edo zer izan beharko litzatekeen

definitzerakoan, azken finean lan honen bitartez oraintsu aipatutako tresna horien helburuak zehazten ari baikara.

Askotan garapen hitza arlo ekonomikoan hainbatetan erabiltzen diren zenbait kontzepturekin lotzen da, besteak beste: aurrerapena, hazkunde ekonomikoa, produktibitate maila altuak, industrializazioa, lehen mailako teknologia, etab. Baina geure buruari galdetu beharko genioke ea oraintsu aipatutako berba horiek guztiak zenbateraino diren garapenaren sinonimo aproposak. Alegia, garapen kontzeptua horretara bakarrik geratzen al da mugatuta?, baldintza horiek betetzen dituzten herrialdeak garatutzat hartu beharko genituzke?, hau da, garapenerako bidean eredu izan beharko lirateke herrialde horiek? Inoiz pentsatu al dugu garapen hitza aipatzerakoan zein errealitate irudikatzen dugun geure buruan?, zeintzuk diren garapenaren ezaugarriak, edo zeintzuk errealitate horretara heltzeko behar diren tresnak, bideak edo aldagai estrategikoak? Beste modu batean galdetuta, jakingo al genuke esaten zehaztasunez garapena zer den eta zertan datzan, edo hobeto esanda, zer izan beharko litzatekeen?

Jende askok uste ez bezala, garapenaren definizio bat ematea eta, ondorioz, egoera horretara iritsi ahal izateko zeintzuk diren bete beharreko baldintzak zehaztea ez da lan makala. Horren lekuko gisa hamarkadetan zehar honetaz izandako eztabaida sakonak ditugu, gai honen nondik norakoak hobeto ulertzen lagunduko digutenak.

Pentsaera ekonomikoaren historian, garapen ekonomikoaren analisisian baikortasunez betetako ikusmoldeak izan dira nagusi. Honen adibide modura, Adam Smith<sup>1</sup>, kapitalismoaren sortzaile teorikoetako bat, aipatu beharko genuke. Berak, historian zehar agertutako liberalismo ekonomikoaren aldeko beste hainbat autore bezala, oso ikuspegi idealizatua zuen kapitalismoaren bilakaeraz. Honek ez du esan nahi, baina, bestelako ikuspegirik egon ez denik, ekonomia klasikotik

---

<sup>1</sup> Pentsalari honen eta beste batzuen teorien inguruko azterketa sakona besteak beste J.K. Galbraith-en “Ekonomiaren historia I eta II” eta W. J. Barber-en “Historia del pensamiento económico”-an aurki daiteke. Interesgarria izan daiteke ere Angus Maddison-en “Historia del desarrollo capitalista. Sus fuerzas dinámicas”-ean nahiko modu labur baina argian egiten den garapen kapitalistari buruzko interpretazioen azterketari begirada bat ematea.

bertatik hasita D. Ricardok, adibidez, hazkunde ekonomikoaren mugei buruzko analisiekin<sup>2</sup>, edo geroxeago Marx<sup>3</sup> eta Engelsek plazaratutako sistema osoaren aurkako kritikekin gertatu bezala.

Gure egunetara gehiago hurbilduz, baikortasun honen adierazle argienetako bat mende honen erdi aldera dugu, “desarrollismo” edo garapenaren ekonomia izeneko mugimendu batek bultzatuta, garapen ekonomiko eta sozialerako posibilitateak oztoporik gabekotzat hartzen baitziren gobernu eta nazioarteko erakunde gehienek aldetik. Hauen artean merkatuaren aldeko aldarrikapenak ematen baziren ere, keynesiarren proposamenak nagusi ziren urte horietan. Sistema kapitalistak garai hartan bizi zituen hedapen, hazkunde eta egonkortasun garaiak interpretazio baikor hauen euskarri-lana betetzen zutela ulertu behar dugu.

Testuinguru horretan, eta salbuespen gisa, herrialde batzuen ezohizko egoera isladatu nahian “azpigarapen” kontzeptua agertu zen. Hitz honek barneratuta omen zuen ideia zera zen, bazeudela herrialde batzuk beste batzuen industrializazio eta modernizazio mailetara oraindik heldu gabeak izanik, azken hauen prozesu bera betez gero egoera horretara iritsiko zirenak. Ikuspegi honen arabera, garapen zeritzon hori desiragarria ezezik eskuragarria ere ba omen zen; antza, politika jakin batzuk martxan ipintzea besterik ez zen behar helburu hori lortu ahal izateko. Beste modu batean esanda, garapen industrialia ona eta edozein herrialdek eskuratzeko modukoa zen ekonomilari gehienek esanetan. Herrialde atzeratuak egin behar omen zuten gauza bakarra, garatuak markatutako bideari jarraitzea besterik ez zen.

Baina, zentzuzkoa denez, hau ez da izan azpigarapenaz edo garapenaren posibilitateaz egin den interpretazio bakarra. Ikusmolde baikor hauei aurre eginez, “dependentistak” eta “estrukturalistak” deitutakoak agertu ziren, hau da, menpekotasunaren garrantzia eta egitura ekonomikoari lotutako arazoak, hurrenez hurren, azpimarratzen zituztenak<sup>4</sup>. Bi multzo hauen analisi

---

<sup>2</sup> R. Malthus, D. Ricardo eta J.S. Mill izeneko autore klasikoek geldialdi ekonomikoa agertzeko posibilitateaz eginiko azterketa ezaguna da.

<sup>3</sup> Pentsaera ekonomikoaren korronteen ikuspegiak jorratzerakoan ezin dugu ahaztu J.M. Naredoren “La economía en evolución. Historia y perspectivas de las categorías básicas del pensamiento económico” izenburua duen lan zehatz eta zabala. Bi atal desberdinetan, marxismoaz eta garapen ekonomikoaz burutzen duen analisisa bereziki baliagarria da aztertzen ari garen gai honen nondik norakoak behar bezala ulertzeko.

<sup>4</sup> Garapenaren fenomenoari buruzko azalpenen arabera oso sailkapen desberdin egin daitezke adituen artean, honen adibide gisa Chenery-k burutu zuen hiru korronteetako sailkapena, Myint-en laukoa, Foster-Carter-en bostekoa, edo Hunt-en zazpi talde nagusiz osatutakoa. Edozein modutan ere, artikulu honetan sailkapenak egiterakoan erabilitako irizpideak laburtzearen aldekoak izan dira, edukinen ulergarritasuna erraztu nahian.

eta proposamenak berdina ez diren arren, esan genezake bat zetoze mundu zabalera garapen zuzen eta bidezkoa kapitalismoak zuen hedatzeko posibilitatea ukatzerakoan. Euren esanetan, teknologia, merkataritza, eta finantzen alorretan ematen zen ekonomia garatuekiko menpekotasuna erabat erabakior bihurtzen zen hainbat herrialderen etorkizunean. Hirugarren Mundua delakoa hainbat herrialdetan pairatutako egoera zen autore hauen erreferentzia eta adibide.

Hala eta guztiz ere, eta oso harrigarria den arren, garapen ekonomikoaren inguruko ikuspegi baikor eta ezkor hauen artean bazegoen amankomuneko puntu bat: garapen industrial, hau da, herrialde garatuetan ematen den egoera, hori berori zen bilatu beharreko helburua, eta desiragarria izateaz gain eskuragarria ere bazela uste zuten bai batzuk zein bestiek. Marx-ek berak, adibidez, industrializazio prozesuak izan zitzaizkeen efektuak begi onez ikusten zituen, dinamika horrek kapitalismoaren barruan sortzen zituen gizarte harremanak batere gustukoak ez bazituen ere. Izan ere, berak ere, bere jarraitzaile askok bezala, garapen eta aurrerapenaren ideiak hazkunde, modernizazio, teknologia eta industrializazio bezalako hitzekin lotzen zituen.

Horrela, autore batzuen eta besteen analisiak, teoriak eta errealitatearen interpretazioak oso desberdinak ziren arren, denek euren buruetan irudikatzen zuten mundu ideala berdina antzekoa zen. Erabili beharreko tresnei eta hartu beharreko bideei dagokienez, euren proposamenak oso bestelakoak ziren, baina iritsi beharreko helmuga definitzeko orduan lehen aipatutako hainbat kontzeptu eta ideia agertzen ziren gehienetan: industrializazioa, hazkunde ekonomikoa, aurrerapen teknologikoak, masa-kontsumoa, energi kontsumo handia, etab.

Kapitalismoaren ordurarteko historia luzea aztertu eta gero, garapentzat hartzen zen horri dagokionean, herrialde desberdinen arteko diferentzia ikaragarriak begi-bistakoak zirela ez zegoen ukatzerik. Horrexegatik, eztabaidaren bi muturrak hartuta, “desarrollista” eta “dependentisten” arteko oso eztabaida sutsuak eman ziren, azpigarapenaren jatorria edo eragilea zein zen, edo fenomeno horri irtenbide bat emateko zer neurri hartu behar zen esaterakoan beraien arteko adostasunik ez zegoelako. Horrela, beraz, garapenerako bidea zein izan daitekeen jakiteko eta abiapuntu modura, 50-eko hamarkadatik aurrera azpigarapenaren egoeraz eta honen konponbidez plazaratu diren ikuspegi desberdinei begirada bat botatzea beharrezkoa zaigu.

## 2- Azpigarapenaren Inguruko Azalpenak.

Oso ikuspegi desberdinak egon dira gai honen analisia egiterakoan, baina gauzak laburbilduz, adituen artean gehienbat bi azalpen nagusi daudela esan dezakegu. Bata azpigarapenaren fenomenoaren barne-aldagaietan (endogenoak deritzen horietan) oinarrituta dagoela esaten dutenena izango litzateke; hauen esanetan, gizarte azpigaratuen ezaugarriak fenomeno honen eragile nagusiak lirateke. Bigarren interpretazioa, azpigarapenaren arazoa kanpotik sortutako faktoreei begira azaltzen dutenena litzateke; euren ustez, kanpoko aldagaiak (exogenoak deritzenak) gizarte hauen azpigarapen egoera sortzen dutenak izanik<sup>5</sup>.

Bi multzo handi hauen barruan zenbait sailkapen egin daitezkeen arren, sinplifikazio honekin geratuko gara, gai honetaz dagoen eztabaidaren muina behar bezala ulertu ahal izateko oso baliagarria izan bait daiteke.

### 2.1- Azpigarapenaren analisia barne-aldagaien ikuspegitik

Azpigarapenari buruzko lehenengo analisi ekonomikoak 50-eko hamarkadan eman ziren herrialde guztien ordura arteko industrializazio mailak batere homogeneoak ez zirela ikustean. Neoklasiko zein keynesiarrek (pentsaera ekonomiko konbentzionala garai hartan gehienbat ordezkatzen zuten ikusmoldeak) herrialde garatuetan erabilitako eskema eta politikak ekonomia azpigaratuetan aplikagarriak zirela uste zuten. Agerian geratzen da horrela, 50 eta 60-eko hamarkadetan autore gehienek zeukaten ikuspuntu baikorra azpigarapenaren errealitateari begira jartzerakoan.

Ekonomilari hauen esanetan<sup>6</sup>, azpigarapenaren jatorria azaltzerakoan aldagai endogeno jakin batzuk hartu behar ziren kontuan: lan merkatuko gehiegizko eskaintza, dibertsifikazio falta egitura produktiboan, alfabetatze maila txikiak, formazio maila eskasa langile zein enpresarien artean,

---

<sup>5</sup> Eztabaida hau bere osotasunean konplexuagoa eta zabalagoa bada ere, bi multzo nagusitan egindako sailkapen hau ohizkoa bihurtu da garapenaren gaineko hainbat analisietan. Pedro Talavera-ren “Economía mundial y subdesarrollo” lanean, besteak beste, ikus daiteke azterketa mota hau.

<sup>6</sup> Hauen artean, W.W. Rostow, A. Lewis, R. Nurske edo C. Clark aipatu beharko genituzke.

inbertsio eta aurrezkiaren eskasia... Rostow-ek, adibidez, garapenaren etapan inguruko bere teoriaren bitartez, gizarte guztiek bost etapa desberdinetatik pasatu behar zirela azaltzen zuen (nekazal gizarte tradizionaletik, masa-kontsumo eta masa-produkzioa ezaugarri moduan zituen azken etapara iritsi arte)<sup>7</sup>. Azalpen honen arabera, herrialde azpigaratuak, behin ekonomi politika jakin bat martxan jarri eta gero, etapa guztiak bata bestearen atzetik gainditzen joan beharko lirateke, herrialde garatuek bere garaian egin zuten legez.

Teoriagile hauek gizarte azpigaratuen arazo nagusia kapitalen eskasia zela adierazten zuten, hau konpondu bezain laster, inbertsioaren gorakadak errenta, produkzioa eta enpleguaren egoera hobetuko zituelarik. Industrializaziorako bidea erraztea zen azken finean proposatzen ari zena. Gauzak planteatzeko modu berezi honek dakarrena, aldiz, zera da azpigarapenaren arazoa hazkunde ekonomikora besterik gabe geratzen dela mugatuta. Beste era baten esanda, hazkunde ekonomikoa eta garapena sinonimoak bailiran erabiltzea suposatuko luke honek.

Baina hazkunde ekonomikoak kontzeptu gisa adierazten duen gauza bakarra zera da, herrialde baten produkzio maila denboran zehar modu iraunkor batean hazi egiten dela. Oraindik ez dugu definitu garapena zer den, alegia, zein den garatutzat har litekeen ekonomi eta giza errealitatea, baina kontzeptu horretarantz pixkanakako hurbilpena egiten ari bagara ere, ez du ematen garapena eta hazkunde ekonomikoa, geroxeago sakontasun handiagoz zehaztuko dugun moduan, parekagarriak direnik. Gehien jota, hazkunde ekonomikoa garapena sustatzerakoan kontuan hartu beharreko faktorea dela esan genezake<sup>8</sup>, baina honek ez du esan nahi, inondik inora, hazkundeak garapena bermatzen duenik<sup>9</sup>.

---

<sup>7</sup> Garapenaren inguruko azterketetan ezinbesteko erreferentzia bihurtu den egile honen lanak gaur egun ere interesa sortzen jarraitzen du, klasikotzat har daitekeen bere libururik ospetsuenaren birargitalpenak agerian uzten duen legez: W.W. Rostow. "Las etapas del crecimiento económico. Un manifiesto no comunista". Ministerio de Trabajo y Seguridad Social. Madrid. 1993.

<sup>8</sup> Ekologisten mundutik ataratako gomendioen artean hazkunde geldiarazteko premia proposatzen duena gero eta gehiago hedatzen ari da; euren argudioaren muinak zera dio, baliabide mugatuak dituen mundu batean hazkunde ezin dela mugagabea izan.

<sup>9</sup> Giza-garapenaren inguruko 1996-ko Txostenean hazkunde ekonomiko eta giza-garapenaren arteko harremanak aztertzen dira, hazkunde ekonomiko soilaren gabeziak agerian utziz, baina giza-garapenerako honen ezinbesteko premia adieraziz ere. Alegia, PNUD izeneko erakundearen esanetan, hazkunde ekonomikoa giza-garapenerako beharrezko baldintza izango litzateke, baina ez nahikoa.

Orain esandakoaren arabera, azpigarapenari buruzko teoria konbentzional hauek, beraz, muga argi batzuk agerian uzten dituztela ondorioztatu daiteke. Hauen artean, euren azterketarako dagoen testuinguru politikoaren, gizartearen egituraren eta ikuspuntu historikoaren gabezia, edo azpigarapenaren ondorioak honen jatorri eta eragiletzat hartu izana aipatu beharko genituzke.

## 2.2- Azpigarapena analisisia kanpo-aldagaien ikuspegitik

Kanpotik sortutako efektuei, hau da, batez ere nazioarteko harremanek eragindako errealitateari, ematen zaien garrantzia azpimarratu gura dugu bigarren ikuspegi honetatik. Sailkapen zehatzetan gehiegi sakontzeko asmorik gabe, azalpen honen barruan ditugun bi korrante nagusiak estrukturalistak eta neomarxistak<sup>10</sup> direla esan genezake. Aldez aurretik jakinda sinplifikazio guztiek zer arrisku daukaten, ondoko ideia amankomun hauetan laburbil genezake bien pentsakera:

- Aldagai ekonomikoetan soilik oinarrituta zeuden ekonomilari konbentzionalen garapenari buruzko analisiak errefusatu egin zituzten. Era honetan, errealitate ekonomikoaz gain, elementu sozio-politiko edota kulturalen garrantzia agerian utzi nahi zuten.
- Azpigarapenak bere bilakaera propioa du eta ez dauka zerikusirik aintzinako gizarte tradizional atzeratuek, kapitalismoarekin inongo kontaktua izan ez zutenek, izandako historiarekin. Gizarte azpigaratuetan egitura ekonomikoa oso lotuta dago ekonomia kapitalista garatuek izandako eboluzioari, azken hauen kapitalaren esportazio eta merkatal hedapenak oso eragin handia izan baitzuen lehenengoetan.

Era honetan, ikuspegi hau defendatzen dutenek azpigarapena mundu mailako kapitalismoaren sorrera eta hedapenaren ondorio gisa ulertu behar dela ondorioztatzen dute. Fenomeno hau ez da autore hauen esanetan, beraz, garapenerako bidean aurkitzen dugun etapa bat, baizik eta egiturazko egoera bat. Arazoaren gakoa herrialde batzuen eta besteen egitura ekonomikoen arteko aldea da, alegia, mundu mailan dagoen egituran bakoitzak betetzen duen funtzioa, eta Lanaren Lanaren Nazioarteko Zatiketa da ideia hau adierazteko normalean erabiltzen den terminoa.

---

<sup>10</sup> “Dependentista marxistak” izendatuta izan diren autore hauen lehenengo erreferentzia teorikoak Lenin, Bujarin edo Rosa Luxemburg bezalako marxista iraultzaileengan dagoela esan daiteke, euren iturririk hurbilena iparramerikako eskolako P. Sweezy eta bereziki P. Baran izanik.

Azterketa hauen ikuspegitik, Zentro eta Periferia izeneko bi bloke nagusi bereizten ziren. Periferiaren ezaugarri nagusiak eredu agroesportatzailearekiko espezializazioa eta, produktibitate mailari dagokionez, ekoizpen sektoreen arteko desorekak lirateke. Zentroaren kasuan, aldiz, jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa eta sektore desberdinetan ematen den egitura produktiboari begira, nahiko egoera orekatua dira azpimarratu beharreko ideiak.

CEPAL izeneko erakundeak (Latinoamerikarako Nazio Batuetako Batzorde Ekonomikoak), Raul Prebisch buru zuelarik, neoklasiko eta keynesiarren ikuspegi konbentzionalak kritikatzeko bazituen ere, garapen ekonomikoa definitzerakoan bat zetorren eurekin kapitalaren metaketak duen garrantzia gailentzeko orduan. Erakunde honek, planteamendu hau abiapuntutzat hartuta, ISI deritzon ereduaren aplikazioa proposatu zuen (industrializazioa inportazioen ordezkapenaren bidez) honek egitura ekonomikoaren eraldaketa sakona ekarriko zuelakoan<sup>11</sup>. Honen helburu nagusia, politika babeszale baten bitartez eta kanpoko inbertsioak erakarriz zein nazionalak sustatuz, produktu nazionaletarako barne-merkatu bat sortzea zen. Izan ere, euren ustez, lehengaien esportazio zein manufakturgaien inportazioekiko hainbat herrialdek zuten menpekotasuna eta industrializazio eza ekonomia hauen arazo nagusiak ziren. Prebisch-ek, besteak beste, industrializazioa garapenerako ezinbestekoa zela demostratzen saiatu zen. Are gehiago, bi hitz hauek sinonimo gisa erabiltzera ere heldu zen. ISI-ren bitarteko industrializazioak egitura produktiboa behin betiko aldatuko zuela uste zen CEPAL-eko lehenengo etapa honetan. CEPAL izeneko erakunde honetan, beraz, Latinoamerikako eskola estrukturalistaren ikuspegia ordezkatuta daukagula esan genezake.

Eredu honen emaitzak 50-eko hamarkadan arrakastatsuak izan baziren ere, 60-eko hamarkadaren erdi aldera argi geratu zen bilatutako helburua, hau da, ordurarteko ekoizpen-espezializazioarekin amaitzea, ez zela lortzen ari. Herrialde hauen kanpoko kapital eta teknologiarekiko menpekotasuna, besteak beste, porrot honen atzean zegoela esan dhi da. Eta arrazoizkoa denez, ereduaren krisialdiarekin batera, hau defendatzen zuen CEPAL-en analisi teorikoa ere zalantzan jarri zen.

---

<sup>11</sup> Estatuaren eskuhartzea eskatzen zuen proposamen honen atzean 1949-ean R. Prebisch eta H. Singer-ek ezagutzera emandako tesia dago, lehengaiak esportatu eta manufaktura inportatzen zituzten herrialdeen elkartruke harremanak zuen okertzeko joera adierazten zuena, hain zuzen.

Beste aldetik, eta CEPAL-en proposamenak errefusatu, nolabaiteko kutsu marxista<sup>12</sup> duten teoriagileen azterketa daukagu, hauen artean, batez ere, André Gunder Frank<sup>13</sup> aipatu beharra dagoelarik. Frank-ek ezaguna bihurtu zuen esaldi batean laburbil daiteke honen argudioaren muina: “sistema kapitalista da azpigarapena garatzen duena”<sup>14</sup>,. Neomarkista hauen analisiaren arabera, Metropoliarik Satelite izate hori zenez azpigarapenaren eragilea, zenbat eta harreman gutxiago egon bien artean orduan eta errazagoa izango litzateke herrialde txiroentzat garapenerako bidea. Harreman-haustura bat behar zen eta hau iraultza sozialistaren bitartez eman behar zela uste zuten neomarkistek. Ikuspegi honetatik, beraz, Zentroaren garapenak Periferiaren azpigarapena dakar ezinbestean, eta hau dela eta nolabaiteko determinismoa leporatu zaie jarrera hau defendatzen zuten adituei, argudio honek garapenaren posibilitatea sistema kapitalistaren barruan ukatzen baitzuen.

### **3- Garapenerako Tresnak eta Bideak**

Orain arte esandakoaren laburpen antzeko bat egitea mesedegarria izan daiteke eztabaida hau nondik nora joan den eta orain zeintzu parametroen arabera mugitzen ari den argiago ikusteko. Bigarren Mundu Gerratearen ostean garapenari buruzko azterketan aritzen ziren aditu gehienak, nahiz eta bat etorri garatuen eredu azpigaratuek jarraitu beharrekoa zela esaterakoan, lehenengoen mailara iristeko erabili beharreko politika mota eta tresnak zeintzuk izan behar ziren erabakitzeko orduan, ez zegoen akordio handiegirik. Gehienbat, Estatuak arlo ekonomikoan zeintzu betebeharrak zituen (neurri babeszaleak eta planifikazioa ala liberalismo ekonomikoa eta merkatua) zen eztabaidagai nagusia.

Geroxeago, 60-eko hamarkadan, garapenera heltzeko beharrezko bideen inguruan eztabaida sakonago bat planteatu zen. Politika edo tresnen gaineko polemika alde batera utzita,

---

<sup>12</sup> Marxengandik hasita, eta Lenin, Bujarin, Rosa Luxemburg, edo Stalinekin jarraituz, Sweezy, Baran, Emmanuel, Gunder Frank, edo Dos Santos-en teoriaren inguruko azterketa sakona J.M. Vidal Villaren “Teorias del imperialismo” liburuan aurki daiteke.

<sup>13</sup> Aurreko kasuetan bezala, oraingo honetan sailkapenak pedagogikoagoak eta ulerterrezagoak egin nahian errealitatearen sinplifikazio bat erabiltzea erabaki dut. Edozein modutan ere, Paul Baran abiapuntu gisa hartuta, Gabriel Palma-k Menpekotasunaren Teoriaren barruan egiten duen hiru azpikorronteen sailkapena aipa genezake erreferentzia gisa. Honen arabera, besteak beste, alde batetik Gunder Frank, Amin, eta Dos Santos, bestetik Furtado edo Sunkel, eta hirugarrenik Cardoso eta Faletto, adibidez, egongo lirateke.

<sup>14</sup> A. G. Frank-en “El desarrollo del subdesarrollo” izenburuko lan laburrean garatuta geratzen da aipatutako ideia hau, adibide modura Brasil eta EEBB-en arteko harreman ekonomikoak hartzen direlarik.

aukeratu beharreko bidea bihurtu zen arazoaren gakoa. Garapenerako bide normala, alegia, herrialde industrializatuek urratutakoa, denentzat (garatu eta azpigaratuentzat) zenbateraino izan zitekeen onuragarria<sup>15</sup> zen azken finean planteatzen ari zena.

Horrela, onuragarritasun orokor eta zabal honetan sinesten ez zutenek garatu eta azpigaratuen arteko harremanak desorekatu eta bidegabeak zirela, eta herrialde aberatsak besteak pobre eta menpeko bihurtzen zituztenak zirela adierazten zuten; beste hitzetan esanda, ekonomia azpigaratuen errealitateak zerikusi handia zeukala garatuek izandako ustezko arrakastarekin. Gauzak horrela, ez zegoen, hauen iritziz, garapenerako aukerarik sistema kapitalistaren barruan, eta honekiko deskonexioa<sup>16</sup>, hau da, lotura guztien haustura, irtenbide bakarra bihurtu zen kapitalismoaren hedapenaren biktima ziren Hegoako ekonomientzat.

Bide kapitalista aproposa ez zenez denak garapenera eramateko, beste bide bat behar zen hauen garapena bultzatzeko. Herrialde azpigaratuak, beraz, garapen deitutako egoera hori lortzeko moduan zeuden, baina kapitalismoaren arauen barruan horrelakorik lortzerik ez zegoenez, bide alternatibo bat, sistema sozialistara zeramana, hautatu zuten Menpekotasunaren Teorian inguruan mugitzen ziren aditu hauek.

Baina denborak aurrera egin ahala, errealitateak oso kasuistika anitza ezagutzera emanez, gauzak ez zuriak ezta beltzak ere ez zirela frogatu zuen. Beste modu batean esanda, eztabaida sakon honetan bazegoen zenbait errealitate ez batzuk ez besteek euren teorien bitartez azaldu ezin zutenak. Alde batetik, gazteleraz “NPIs” eta ingelesez “NICs” (Industrializazio Berriko Herrialdeak) deituriko herrialdeen agerpenak zalantzan uzten zituen kapitalismoarekiko kritikoak zirenen ikuspegi ezkorra batzuen, determinismoari nolabait argudioak kenduz, hortxe bertan zeudelako zenbait herrialde

---

<sup>15</sup> Onuragarritasunaren inguruko polemika zein neoklasiko eta neomarxisten arteko eztabaidaren muina Albert Hirschman-en “Auge y ocaso de la economía del desarrollo” artikuluan mamitsuan dago. Bigarren Mundu Gerratearen ostetik aurrera “Garapenaren Ekonomia” delakoari ekonomilari honek ematen dion gainbegiratu kritikoa bereziki aipagarria da.

<sup>16</sup> Sistema kapitalistarekiko hausturaren beharra ezaguna izan da hainbat agintari politikoen artean, Mao Tsé-tung hasita Naser, Nehru edo Sukarnorekin jarraitzeko. Baina arlo teorikoan Menpekotasunaren Teoriakoak izan dira deskonexioaren aldeko jarrerarik argiena izan dutenak, hauen artean Gunder Frank, Dos Santos edo Marini kontuan hartu behar ditugularik, baina batez ere, Samir Amin, kontzeptu hori ardatz moduan hartuta liburu oso bat irtenbide horren abantaila eta eragozpenak azaltzera dedikatu zuena: La desconexión. Iepala. Madrid. 1988.

azpigarapenetik garapenerako bidea zabaltzen ari zirenak<sup>17</sup>. Baina, beste aldetik, herrialde askoren egoerak besteen baikortasuna justifikatzeko aukera gehiegirik ez zuen ematen, bide kapitalistatik eman behar omen zen garapen hori, pobrezia, gosea, elkartruke erlazioaren okerragotzea, bazterketa edo kanpo zorra bezalako arazoetan gauzatzen ari zelarik.

Honek guztiak ordura arteko eztabaidaren inguruko zalanza ugari mahaigaineratu zituen eta azterketa edo pentsamolde berrien premia azaleratu zuen. Arlo teorikoan eztabaida honek zituen hutsuneak hobeto ulertu ahal izateko aurkarien artean zeuden amankomuneko ideiak miaztera joko dugu.

#### **4- Aurkarien Arteko Adostasunak**

Garapenerako estrategiarik aproposena aukeratzerakoan, eztabaida honen bi talde nagusien artean adostasunik ez zegoen arren, bazeuden, aldiz, batasun puntu batzuk uste baino arlo gehiagotan. Hasteko, lehen aurreratu dugun moduan, garapena zertan gauzatu behar zen adierazterakoan batzuk eta besteek buruan zuten ideia berdin antzekoa zen. Denek garapena, izenak berak dioen bezala, herrialde garatuetan ematen zen egoera zela uste zuten. Hau da, herrialde batek garapen maila altua lortzeko izan behar zituen ezaugarriak ekonomia industrializatuenak zirela zioten alde batekoek zein bestekoek.

Honez gain, horrela definituta geratzen zen garapena edozein herrialdek erdiesteko modukoa zela onartuta zegoen batzuen eta besteen aldetik. Alegia, errealitateak oso bestelako egoera erakusten bazuen ere, industrializazio prozesuari lotuta zegoen garapen hori herrialde azpigaratuen esku ere geratzen zela uste zuten denek.

Beste alde batetik, industrializazio, hazkunde ekonomikoa eta produktibitate maila altuen eta premiazko beharizanen asetze edo ongizatearen artean lotura handia zegoela esaterakoan ados zeuden ere. Beste era batera esanda, zenbat eta aberatsagoa izan herrialde bat, bere biztanleek orduan eta ongizate maila handiagoa izango zutela baieztatzen zuten; eta honen arabera, noski, garapena desiragarritzat jotzen zen.

---

<sup>17</sup> Herrialde Industrializatu berrien inguruko azterketa sakon eta zabala Joaquín Arriolaren “Los nuevos países industrializados”, edota Carlos Berzosaren “Los nuevos competidores internacionales”-ean aurki daiteke.

Azkenik, helburu bihurtuta zegoen garapen horretara heltzeko, eragozpenak agertzekotan, hauek hartu beharreko bidearen ingurukoak eta arlo ekonomiko, politiko eta sozialean kokatutakoak izango zirela zioten. Ingurugiroaz edo garapen horren posibilitate materialaz, aldiz ez zen inongo aipamenik egiten. Garapena gehienbat ongizateari lotutako kontzeptu bat zen denen esanetan, baina inor gutxi zegoen arduratuta garapen eta oreka ekologikoaren arteko harremanez. Alegia, zeozelango oztopoekin, baina garapena eskuragarria eta mundu mailan hedagarria zelakoan zeuden batzuk zein besteak.

## **5- Eztabaida berri baterako ardatz berriak**

Mende honetako erdi aldetik aurrera azpigarapenaren inguruan egin den zenbait hausnarketa, hurbilpen eta interpretazio aztertu eta gero, eztabaidaren gakoa garapenera heltzeko jarraitu beharreko bidean kokatzen zela ondorioztatu dugu. Gaur egun polemika hura, aldiz, beste modu batean fokatuta dago, eta aipatutako ideia hauek guztiek, oraintsu azaldutako hutsuneak direla eta, ez daukate jada garai bateko indarra. Izan ere, garapenaren gaineko eztabaida hau birbideratu egin da, honen muina kontzeptu beraren definizioan oinarritu delarik. Iritsi beharreko helmuga da orain, beraz, eztabaidagai nagusi bihurtu dena.

### **5.1- Aurrekariak**

Gaur egun sortzen ari den ideia-sorta honen nondik norakoa luze eta zabal aztertu baino lehenago, jo dezagun ardatz berri hauen aurrekari teorikoak izan direnak aipatzera. 60-eko hamarkadaren azken urteetan eta 70-eko lehenengoetan ikuspegi gizazaleago baten agerpena dugu, Dudley Seers-en lanetan eta OIT erakundeak burututako enpleguari buruzko gogoetetan abiapuntua duelarik. Lan hauek guztiek zenbait puntu dituzte amankomunean, besteak beste, hazkunde ekonomikoari emandako gehiegizko garrantziaren gaineko kritika, eta enpleguaren sorrera, errentaren banaketa, edota pobreziaaren ezabapenaren aldeko aldarrikapena, etab.

Sasoi honetan arlo teorikoan aurkitzen dugun beste erreferentzia bat 1969-an argitaratu zen “Pearsons Txostena” ezizenez ezagututakoa da. Garai hartan nazioarteko garapenerako lankidetzaz zabaldu zen kezka nabarmena zen, 2. Mundu Gerratik aurrera arlo honetan emandako emaitzak

oso arrakastatsuak ez zirela ikusirik. Munduko Bankuak eskatuta, L.B. Pearsons Kanadako Ministro ohiak ikerketa honen gaineko ardura hartu zuen. Bere helburu nagusia, ordura arteko akatsak identifikatu ondoren, hurrengo hamarkadetan garapenerako lankidetzak hobetu zuten gomendio eta aholkuak<sup>18</sup> plazaratzea zen.

Azterketa hauen guztien ildotik, hazkunde ekonomikoaren eta birbanaketaren arteko gatazka planteatu zen, azken honek zuen onuragarritasunean funtsaturik bere aldeko apustua eginez. Horrela, birbanaketaren gaia berebiziko itzala hartzen hasi zen, Albert Fishlow-en lan baten bitartez Brasilgo errentaren banaketa zuzengabearen inguruko datuek Munduko Banku beraren interesa piztu zutelarik. Sasoi horretan kokatutako eztabaida honek ezinbestean aipatu beharreko beste ekarpen bat eman zuen, beste batzuen artean H. Chenery-k hazkunde eta birbanaketaren arteko harremanetan oinarritutakoa<sup>19</sup>. Baina hausnarketa honetan proposatzen zen irtenbidea, alegia, hazkunde ekonomikoa eta birbanaketa ardatz nagusitzat zituena, ez zen nahikoa Hirugarren Mundua delakoan miseria gorrian bizi ziren hainbat milioi pertsonarentzat.

Era honetan, pobrezia arazo<sup>20</sup> ardatz nagusietako bat bihurtu zen eztabaida honetan 1974-tik aurrera Munduko Bankuak argitaratutako zenbait lanetan agerian geratu zen bezala<sup>21</sup>. Garapenaren inguruko azterketa hauen aurrerapausu gisa ulertu egin behar da ere, pobrezia errealitatetik abiatuta, OIT erakundeak 1976-ko mundu mailako bere konferentzian elikadurari, osasunari, hezkuntzari, edota partaidetzari, alegia, oinarritzko beharrezaneiei eman zien garrantzia.

Hala eta guztiz ere, analisi berriztatzaile hauek oso denbora laburrean mantendu ziren puripurian, besteak beste, 1973-tik aurrera agertutako krisialdiak hazkunde ekonomikoaren premia berriro azpimarratzera bultzatzen zuelako<sup>22</sup>. Beste aldetik, Hirugarren Mundua delakoan hausnarketa

---

<sup>18</sup> Harritzekoak dira Munduko Bankuaren eskariz egindako txosten honek ondorio gisa luzatzen dituen proposamen ausart eta aurrerakoiak zenbait arazoen aurrean.

<sup>19</sup> H. Chenery. Redistribución con crecimiento. Banco Mundial. Tecnos. Madrid. 1976.

<sup>20</sup> Gure planetan gaur egun hainbat milioi pertsona pairatzen duten arazo honetaz datu gaurkotuak eta gogoeta interesgarriak 1997-ko Giza-garapenari buruzko Txostenean.

<sup>21</sup> “The Assault on World Poverty” edo “Growth and Poverty in Developing Countries” bezelako izenburuak nahiko adierazgarriak dira orduan berriak ziren erakunde honen interesguneak isladatzerakoan.

<sup>22</sup> 40-eko hamarkadaren azkenetatik 70-ekoaren hasierara arte garapenari buruzko analisietan egondako bilakaera ulertu ahal izateko, sarrera moduan P. Streeten-ek “Pioneros del desarrollo” liburuan ordurarte eztabaiden laburpen modura idatzitako azken atala mesedegarria izan daiteke. Garapenaren aitzindariatzat hartuak izan ziren zenbait adituen atzerantzako begiraden emaitza diren artikuluek gomendagarriak dira ere.

hauek ez zuten eragin handiegirik izan, euren agintariak barruko banaketa bidezkoan baino herrialde batzuen eta besteen arteko errentarekiko diferentzia izugarrietan ikusten zutelako euren arazoaren gakoa<sup>23</sup>.

Oraintsu azaldutako testuinguruan, eta gero sakonago jorratuko dugun ingurugiroaren arazoari lotuta, aurrekari teoriko nagusi baten agerpena ere ematen da garai honetan. Erromako Klubaren bitartez egindako txostenek baliabide natural eta ekologiareneko gainera azaleratzen dute, hazkunde ekonomikoaren mugak jakitera emanez, eta oso etorkizun beltza aurreikusiz. Massachusetts Institute of Technology-ko aditu talde bati Klubak eskatuta “Meadows” ezizenarekin ezagutzen den txosten ospetsua egin zen<sup>24</sup>. Funtsezko aldagai modura biztanleria, nekazal ekoizpena, baliabide naturalak, edota kutsadura aintzat hartzen dituen txosten honek ondoko ondorio honetara heltzen da: begien aurrean dugun egoera ezkorra aldatzeko alternatiba “zero hazkundera” izendatutakoa da. Analisi eta proposamen honek oso zalaparta handia sortu zen sasoi hartan, ekonomi teoriaren alorrean une horretara arte onartuta zeuden hainbat printzipio eta azterketa hankaz gora jartzen zituelako.

## 5.2- Neoliberalismoaren agerpena

Garapenaren inguruko ikerketa eta gogoetek sekulako aldaketa ezagutu zuten 70-eko hamarkadaren bukaera aldera. Honek zerikusi handia izan zuen EEBB, Mendebaldeko Alemanian eta Britainia Handian gobernura iritsitako alderdi politikoen proposamenekin. Hauek, aurreko monetaristen eragin ideologikoa jaso eta “Eskaintzaren Ekonomia” izenez ezagutzen den pentsaerakorrantearen sorrera lagundu zuten.<sup>25</sup> Honek guztiak, gainera, bere eragina izan zuen ere nazioarte mailako zenbait erakundeetan, Nazioarteko Moneta Fondoa kasu. Baina oraintsu aipatutako erakunde eta pertsonaiez gain, badaude beste batzuk ideologia kontserbakorraren bozgoragailuaren rola euren gain hartu zutenak. Hauen artean honako hauek aipatu beharko genituzke: OCDE-ko

---

<sup>23</sup> Argeliaren ekimenez eta “Lerrotu gabeko Herrialdeen” interesak defendatuz, NOEI delakoa (Nazioarteko Ordena Ekonomiko Berria) aldarrikatua izan zen 1974-ko Nazio Batuen Asamblada Nagusian, hainbat herrialderen arazoaren gakoa nazioarteko harreman ekonomikoaren desorekan kokatzen zelarik.

<sup>24</sup> Donella H. Meadows-ek koordinaturik, “Los limites del crecimiento” izenburuko lana argitaratu zen 1972-an. Gai honen gainera eztabaida ondoko lan honetan ere aurki daiteke laburbilduta, Ramon Tamames-en “La polémica sobre los limites del crecimiento”.

<sup>25</sup> Ekonomiarako sarrerako zenbait testuliburutan eskola honetako aintzindari nagusi gisa Ronald Reagan, Margaret Thatcher, eta enpresaren munduan jatorria duen Arthur Laffer aipatzen dira.

Garapenerako Zentroa (D. Little), Garapenerako Asiako Bankua (H. Myint), edo Munduko Bankuaren inguruan H. Chenery eta B. Balassa-k egindako lanak.

Pentsaera neoklasikoaren birformulaziotzat jo dezakegun korrante neoliberal honen proposamen nagusiak<sup>26</sup> ondoko hauek lirateke: merkatuaren eraginkortasuna goraipatu, ekonomiaren alorreko Estatuaren eskuhartzeak dituen ondorio kaltegarriak agerian utzi, eta nazioarteko harremanen liberalizazioa azpimarratu, ISI deituriko politiken aurkako kritika zorrotza plazaratuz.

Gaur egun oraindik bizirik dagoen kontrairaultza neoklasiko merkatuzale honek garapenari buruzko eztabaida apurtu egin du oreka makroekonomikoa edozein herrialdetan aplikagarria eta onuragarria den arautzat jotzen duen momentutik. Baina ez dugu ahaztu egin behar neoliberalismoaren aldekoek errentaren banaketari lotutako faktoreak edo gizarte mailan merkatuak dituen ondorio kaltegarriak ez dituztela kontuan hartzen, euren proposamen atzerakoiek munduko populazioaren talderik ahulenen artean oso eragin tamalgarriak eragin ditzaketelarik.

### 5.3- Garapena birdefinitzen

Bi kontzeptu berri izan dira azken urteetan garapenaren inguruko eztabaida, egitura teoriko berri bat eskainiz, goitik behera aldatzen ari direnak: giza-garapena eta garapen sostengarria (edo jasangarria). Lehenengo eta behin, hitz mardul hauen atzean ezkututzen den filosofia eta ideien multzoa argitzen saiatu beharko ginateke helburu honen birdefinizioa zertan datzan ulertu ahal izateko. Bi kontzeptu hauek nazioarteko bi txosten ospetsu izan dute abiapuntu gisa: “Giza-garapenaren inguruko Txostena”, PNUD izeneko Nazio Batuen erakundeak 1990-ean argitaratutakoa, eta “Brundtland Txostena” ezizenez (batzordea zuzendu zuen Norvegiako politikari sozialdemokrataren izena hartuz) ezagutzen den Garapen eta Ingurugirorako Munduko Batzordeak 1987-an egindako txostena. Aipatutako txostenak erakunde desberdinek sortuak direnez, hasiera batean biak gorputz teoriko beraren barruan integratzeko ahaleginik ez zen egin; hau da, bata ez zuen bestearen edukinei buruzko aipamenik egiten ezta alderantziz ere.

---

<sup>26</sup> Neoliberalis moaz zein garapenaren alorrean aurretik aipatutako beste korranteetaz analisi sakon eta interesgarria P. Busteloren “Economía del desarrollo. Un análisis histórico” lanean aurki daiteke.

Paul Streeten<sup>27</sup> edo Amartya Sen<sup>28</sup> bezalako aditu ospetsuen lanak erreferentzia modura hartuta, giza-garapenaren kontzeptuak premia biziko beharizanen garrantzia (osasun zerbitzuak, hezkuntza, elikagaiekiko eskuragarritasuna...) azpimarratzen du. Ideia honek egiten duen ekarpen nagusia zera da, gizakia garapenaren helburua izan beharko litzateke, eta ez garapenerako tresna edo industrializazio, modernizazio eta hazkunde ekonomikorako beharrezko bitartekoa, duela gutxira arte ulertzen zen moduan. Hala eta guztiz ere, PNUD-ek 1990-tik argitaratutako txosten hauetan badago elementu bat ika-mika dezente sortu duena, alegia, giza-garapena neurtzeko sortu den indizea: IDH delakoa<sup>29</sup>.

Garapen sostengarriaren kontzeptuari dagokionean, nahiko nahaspilatsua dela, eta oso hurbilpen teoriko desberdin egin ohi zaizkiola esan beharrean gaude. Kontzeptu honen anbiguitasuna gero eta gehiago zabaltzen ari den bere erabilpenean datza. Azkenaldi honetan nazioarteko erakunde askok, gobernu buruek, oposizioko alderdiek, eta talde ekologistek termino hau hitzetik hortzera darabiltela ikusten ari gara, baina, zentzuzkoa denez, batzuk eta besteek euren diskurtsoetan erabiltzen dutenean ez diote esanahi bera ematen. Alegia, ezin dugu pentsatu denek helburu gisa definitu nahi duten ametsetako mundu ezin hobe hori inondik inora berdina denik.

Gauzak zehaztearren, erreferentzia gisa Brundtland Txostenak<sup>30</sup> honetaz esandakoa normalean aintzat hartzen dena izan arren, hainbat definizioen kasuan gertatzen den legez, aditu guztiak ez datoz bat aipatzen diren ideien interpretazioa egiterakoan. Edozein modutan ere, azter dezagun txosten honek sostengarritasunaren kontzeptuari egiten dion hurbilpen teorikoa. Definizio honek dioenaren arabera garapen jasangarria zera da, “hurrengo belaunaldien beharizanak asetzeko gaitasuna kaltetu barik, oraingoena betetzen dituen”. Gaur egun kontzeptu honen gainean ematen

---

<sup>27</sup> P. Streeten: “Lo primero es lo primero”. Oinarrizko beharren ikuspegiak abiapuntu nagusia du lan honetan, behar hauen eta hazkunde ekonomikoaren arteko erlazioak aztertu, BPG adierazleari zuzenketak egin, eta gizarte-adierazleak zein indize berriak proposatzen dituelarik.

<sup>28</sup> Besteak beste, autore honen “The Standard of Living” izenburuko lana azpimarra daiteke. Aditu honek bere idazkietan erabiltzen duen kontzeptu nagusietako bat “ahalmena”-rena da, gizabanako bakoitzak hainbat aukeren artean duen hautatzeko askatasuna nolabait neurtu guran.

<sup>29</sup> IDH izeneko indizeari egin zaizkion kritikak jorratu nahi izanez gero P. Streeten-en “Desarrollo Humano: el debate sobre el índice” edo Robert Sutcliffe-ren “Desarrollo Humano: una valoración crítica del concepto y del índice” izenburuko lanei begirada bat ematea gomendagarria litzateke.

<sup>30</sup> “Nuestro futuro común” izenburupean argitaratutako txosten honen inguruko azterketa kritikoa J.M. Alíer-en “De la economía ecológica al ecologismo popular”-ean dugu. Honen hirugarren atalean txostenak egiten duen hazkunde ekonomiko, pobrezia eta oreka ekologikoaren arteko harremana errefusatzen da, birbanaketaren irtenbidearen aurrean ezikusiaarena egiten duela argudiatuz.

ari den eztabaida<sup>31</sup> interesgarria bezain polemikoa da, terminologia bera erabili arren, gustu eta kolore guztietako edukinak ematen ari zaizkiolako garapen mota honi. Interpretazioak ugari eta oso bestelakoak diren arren, nolabaiteko mugak ipini beharko litzaizkioke ustezko sostengarritasun horri. Edozein garapen eredu jasangarria izan al daiteke?; mugarik gabeko hazkundera eta oreka ekologikoa bateragarriak izan al daitezke? Zehaztasun osoz sostengarritasunaren muga zehaztuko lukeen marra non dagoen esatea benetan zaila dela behin onartu eta gero, sen onak galdera hauei ezezko borobila ematea eskatu beharko liguke.

## **6- Garapen desberdin baterako oinarriak**

Eztabaidaren ardatz berriez sarrera bat egin eta gero, azter dezagun bi kontzeptu hauek garapenaren inguruko ikerketen arloan egin duten ekarpena. Izan ere, bakoitza bere aldetik sortuak izan badira ere, barneko filosofiari begiratzen badiogu, badituzte zenbait amankomuneko puntu<sup>32</sup>, garapenaren azalpen berri baten gorputz teorikoaren osaketarako ezinbestekoak direnak.

Hasteko, giza garapenaren ikuspegitik, hazkunde ekonomikoak (garapenarekin hainbat aldiz identifikatua izan denak) ez ekonomia atzeratuen populazioaren artean, ezta herrialde aberatsen gizarte talde guztien artean ere, premia biziko beharren asetzea ezin izan duela bermatu adierazten da. Hori dela eta, ez dago gaur egun batere garbi ezagutzen dugun garapen industrialarekiko garai batean zegoen desiragarritasuna. Garapen mota hau lehen komenigarria eta desiragarria zela uste zen populazio osoarentzat ongizate maila altuagoa zekarrelakoan. Baina denbora pasa ahala herrialde batzuen eta besteen arteko aldea, edo bakoitzaren barruan gizarte talde desberdinen artekoa, gehitu egiten ziren errenta mailari begira. Orain, beraz, bizi-kalitatearen hobetzea mundu mailan inondik inora zabaldu ez dela jakinik, premia biziko beharrianen asetzeari ematen zaio lehentasuna, azken honetan eta gizabanakoaren ongizatean garapen ekonomikoak izango duen eraginaren arabera garapen honen garrantzia baloratuz.

---

<sup>31</sup> Garapen Sostengarriaren anbigutasunaz gomendatzekoak dira J. Riechmann-en “Desarrollo Sostenible: la lucha por la interpretación” izenburuko artikuluan eskaintzen diren hausnarketak eta Brundtland Txostenak dituen akats eta hutsunei egiten zaien kritika.

<sup>32</sup> Giza-garapena eta Garapen Sostengarria lotzeko interesa agerikoa izan da azken urteetan zenbait adituen artean. Gai honetan, adibidez, Robert Sutcliffe-en lana azpimarratu beharrea gaude, besteak beste, “Desarrollo, redistribución y medio ambiente” edota “Desarrollo frente a ecología” izenburuko artikulua aipatu behar direlarik.

Garapen sostengarriari dagokionez, garapentzat orain arte hartutakoa desiragarria ez izateaz gain (kutsadurak gizakiengan sortzen dituen kalte zuzen eta zeharkakoen kasuan, adibidez, biztanleriaren bizi-baldintzak txartu egiten direla argi dago), ezinezkoa ere badela ondorioztatzen da. Ingurugiroa etengabea kutsatuz eta baliabide berriztaezinak agortuz eredu hau ezin da luzaroan mantendu, eta are gutxiago hedatu garatugabeak kontsideratzen diren herrialdeen artean. Herrialde “garatuotan” dugun eredu ezin da munduko beste ekonomietara esportatu neurririk gabeko kontsumoan eta muga jakin bat duten baliabideen ustiakuntzan oinarrituta dagoelako. Ez dugu ahaztu behar, gainera, Hirugarren Mundua deritzon horren baliabideen erabilpena industrializatuena baino askoz ere komenigarriagoa dela hainbat arlotan jasangarritasunaren ikuspuntutik. Kontsumitzeko eta ekoizteko gure moldeak antisozialak dira definizioz, gehiengo baten bazterketaren premia dutelako eta ezin direlako unibertsalizatu, alegia, mundu osora zabaldu.

Garapena neurtzeko gehienbat erabili diren aldagaiak Barne Produktu Gordina, Errenta Nazionala, hazkunde ekonomikoa, edo hauei lotutakoak izan dira. Baina arrazoi ugari tarteko, ez du ematen aldagai hauek herrialde baten garapen mailaren adierazgarri onak direnik ez oinarritzko beharizanen asetzeari ezta ingurugiroaren zaintzari dagokienez.

Giza-garapenaren ikuspegitik, ezin da pentsatu ekonomia baten BPG edo hazkunde ekonomikoa igotzen den bakoitzean, herrialde horren biztanleriaren ongizatea edo bizi-kalitatea hobetu egin direnik. Datu horiek ematen diguten informazio bakarra zera da, herrialde horretan sortutako errenta edo produzitutakoaren balioa handiagoa dela, baina horrek ez du bermatzen errenta horren banaketa bidezkoa edo zuzena izan denik, ezta eskainitako ondasun eta zerbitzuak premia biziko beharrak asetzera bideratu direnik.

Garapen sostengarriaren aldetik ere, ekonomia baten garapen maila neurtzeko egiten den aldagai hauen erabilpenari kritika zorrotzak egiten zaizkio. Ezin dugu interpretatu herrialde baten garapena igo egiten dela bere BPG gehitzaerakoan, hazkunde horrek jendearen ongizatea kaltetzen badu, besteak beste, hondakin toxikoak sortuz, edo baliabide naturalak agortuz.

Bi ikuspegi hauetatik, beraz, garapena ez da ekonomia aberatsetan ematen dena, baizik eta oraindik sistematikoki inoiz ezagutu ez den egoera bat, ez “garatuak” izendatzen diren herrialdeetan ezta “azpigaratuak” deitutakoetan ere. Gizarte “garatuen” eredu ez da, beraz, beste guztiek jarraitu

edo kopiatu beharrekoa, herrialde industrializatuen ezaugarriak beste guztietara zabaltzeak jasanezinezko egoera batera eramango bait luke gure planeta oreka ekologikoari begira. Ezagutzen dugun garapen erreal hori desiragarria ez izateaz gain, denentzat eskuragarria ere ez da. Era honetan, garapenerako bidea ez da azpigaratuek konpondu beharreko arazo bat, edo iritsi gabeko etapa bat, baizik eta guztioi dagokigun zeozer eta ikuspegi zabal eta global batetik planteatu behar dena, gehienetan erabiltzen diren irizpide ekonomizista hertsietatik kanpo. Helburu nagusitzat hartu dugun giza-garapen sostengarria, beraz, mundu mailan eta gizaki bakoitzarentzat planteatu beharra dago, herrialde edo estatu bakoitzarekiko erreferentzia alde batera utzita.

## **7- Konzeptualizazio eta teoriagintza baino askoz ere gehiago**

Behin garapen kontzeptuaren inguruan arlo teorikoan eman diren interpretazio eta azalpen desberdinak aztertu eta gero, hau da, “garapena” zer den, eta zer izan beharko litzatekeen argitu ondoren, analisi hauek guztiak praktikara eramateko ordua iritsi da. Orain arte osatzen saiatu garen gorputz teorikoak berebiziko garrantzia du giza-garapen jasangarria bultzatzeko neurriak aukeratu eta inplementatzeko orduan. Era honetan, arlo teorikoan, batez ere, kokatzen den eztabaida honek oso erabilpen praktikoa bilatzea du xede modura. Gogoeta hauek guztiek, beraz, oso esparru zabalak diren ekonomi politikaren eta garapenerako lankidetzaren helburuak birdefinitzeko asmoz egin dira, honek errealitatearen eraldaketarako nola edo hala lagunduko duelakoan.

Konponbideak bilatzeko lanean jarrita, premia biziko beharren asegabetasuna baliabide faltaren ondorioa ez dela errez ikus daiteke. Batzuen gabezia eta besteen zarrastelkeria eta oparotasuna, beraz, errealitate krudel honen atzean dugula sinisterrezagoa da, zalantzarik gabe. Horrexegatik, birbanaketan eta honek eragin ditzakeen efektu onuragarrietan izan behar ditugu begiak jarrita, honek mundu zabalean hainbat milioi pertsonen gutxieneko bizi-kalitatea eskuragarri bihurtzeko ezinbestekoa baita.

Garapenaren gaineko hausnarketa honetan bigarren ardatz nagusia den oreka ekologikoari dagokionean, zalantzan ipintzen ari gara gure ereduak duen sostengarritasuna. Jasangarria al da gure planetarentzat baliabideak erabiltzeko dugun erritmoa?, beste herrialdeetara hedagarria?, hurrengo belaunaldiak jarraitzeko modukoa? Ezezko erantzunaren aldeko apustua eginda eduki beharko genuke dagoeneko; hainbat baliabideren kasuan, askotan zehatz-mehatz zenbat urtetarako

erreserbak geratzen diren esatea erreza ez bada ere, hauek lehenago edo geroxeago agortu egingo direla jakina da. Gure mundua eta bere baliabideak mugatuak badira, ezin dugu pentsatu baliabide horiek etengabe erabiltzen dituen gure sistema ekonomikoak mugarik ez duenik. Eta honek guztiak ondorio argi batera garamatza: hurrengo belaunaldiak egingo duten baliabideen erabilpena baldintzatu eta euren ongizatea kaltetu nahi ez badugu, hauenganako birbanaketa diakronikoa behar-beharrezkoa zaigu.

Aurreko gogoeta teorikoen ondorio gisa hemen dugu praktikara eraman beharreko neurrien ardatz nagusia, birbanaketa alegia. Esandakoaren arabera, birbanaketa, bi maila desberdinetan gauzatu beharko litzateke: aberats eta behartsuen artean, herrialde bakoitzean zein nazioarte mailan (ongizateari lotutako kritika), eta belaunaldi batzuen eta besteen artean (ingurugiroari lotutakoa).

Baina teoria mailan egin dugun azterketa sakonetik ondorio argi bat atera dugun arren, birdefinituta agertzen den helburua erdiesteko behar bezalako neurriak inplementatzea ez da lan makala izango. Aurrerapausu teorikoak paperezko orrialde baten gainean egiteak bere lana ematen du, baina ez hauek praktikara eramatea ematen duen bestekoa.

Ateratako ondorioen arabera, benetako garapena, ingurugiro eta oinarrizko beharrekiko ardura duena, bideratu ahal izango da soilik baldin eta baliabideen erabilpenean aldaketa sakona ematen bada, eta nazioarteko harreman ekonomikoetan herrialde askok pairatzen duten menpekotasuna gainditzen bada. Baina eraldaketa sakon honek gutxiengo aberats eta boteretsuaren aldeko jarrera beharko luke (noren eta biztanleriaren gehiengoaren egoera tamalgarrian nolabaiteko erantzukizuna duen gutxiengoaren sostengua) edo nazioarte mailako erakunde birbanatzaile batek burututako gehiengoaren aldeko inposizioa. Ez du ematen, beraz, ez bide batetik ez bestetik egoera honi irtenbide bat epe laburrean emango zaionik.

Saia gaitezen, edozein modutan ere, begien aurrean dugun panorama aztertzen, zentzurik zabalenean ulertu behar den birbanaketa praktikara eramateko aurkituko ditugun eragozpenak aintzat harturik.

Hasteko, gure gizarteetan ekosozialistatzat<sup>33</sup> bere burua hartzen duen mugimendu bat edo alderdi politiko bat aurkitzea zaila dela esan beharko genuke. Bakoitza bere aldetik, mugimendu ekologista zein ezker politiko bateratuak identifikatzea askotan oso erreza ez bada ere, egin daitekeela behintzat esan genezake. Gauzak, aldiz, askoz ere konplexuago bilakatzen dira bi multzo ideologiko horien batasunaren bidaragarritasunaz hitz egiten hasten garenean, ekologisten artean denak ezker politikoa kokatzen ez direlako ezta alderantziz ere.

Honez gain, ingurugiroaren gaineko interesa geroz eta handiagoa bihurtzen ari omen dela behin baino gehiagotan entzun dugu azken aldi honetan (birziklaia sustatzeko ekimen instituzionalak, zerga berde eta kontabilitate nazional desberdin baten aldeko proposamenak...). Mugimendu ekologistaren ustez, aldiz, gauzak hain argi ez daudela ematen du. Hau da, erakunde publikoek bultzatutako ekimen askok kritika gogorak jaso dituzte Ekonomia Ekologikoa izendatua izan den korrontearen aldetik.

Beste aldetik, ideologia sozialistaren garapenari dagokionean, gaur egun indarrean dauden teoria ekonomikoak merkatu askearen aldekoak direla esatean ez dago zalantza handiegirik. Honek guztiak errealitatean oso ezaguna egiten zaigun terminologiaren bitartez gauzatzen da, era honetan, gaur egun mundu mailan dagoen dinamikaren ardatz nagusiak marrazterakoan, besteak beste, liberalismo ekonomikoa, desarauketa, elkartrukeetarako traben desagerpena, arlo publikoaren pisuaren galera, aurrekontu murrizketak, babes sozialaren gutxitzea, Ongizate-Estatuaren desitxuraketa, etab aipatu beharko genituzkeelarik.

Nazioarte mailan kokatuta, zoritxarrez, gauzek ez dute itxura hoberik. Herrialdeen arteko birbanaketarako tresnak aipatzerakoan, era eta arlo desberdinetan burutzen den garapenerako laguntza eta lankidetzaz hitz egin beharra dago, egun nazioarte mailan ustez birbanaketarako martxan dagoen bitarteko apurrenetako bat haxe baita. Esperientziak frogatu duen legez, tresna hauek

---

<sup>33</sup> Oreak ekologikoa eta ongizatearen banaketaz ardura duen gizarte bat eraikitzeke zenbait proposamen Fernandez Buey eta Riechmann-en “Ni tribunak. Ideas y materiales para un programa ecosocialista” liburuan eskaintzen dira. Beste horrenbeste esan genezake R. Bermejok “Manual para una economía ecológica” izenburupean idatzitako lan mardul eta sakonaz. Azken honetan, egun nagusi den sistema ekonomiko kapitalista kritikatzeko hasita, Ingurugiro-Ekonomia izeneko korrontearen proposamenak oso era zorrotzean aztertzen ditu, lehenengo honekiko alternatiba gisa aurkezten den Ekonomia Ekologikoa deitutako bigarren korronte baten ikuspegitik aldarrikapen zehatzak eginez.

martxan jarri direnean<sup>34</sup>, kasurik onenean, ez dira herrialde behartsuenen garapenerako nahikoak izan, eta txarrean, gobernu emaileen interes geostrategikoen arabera erabiliak izan dira<sup>35</sup>, askotan eskaintako laguntza merkatal helburuek baldintzatutakoak izanik. Kalitate zein kopuruari begira asko hobetu beharra dagoela argi dago.

Testuinguru honetan baliabideen birbanaketa bidezkoaren aldeko apustua egitea korrontearen aurka igeri egitea bezalakoa izan daiteke. Ez du horrek esan nahi helburua lortezina denik, baina ez dago ukatzerik oso ahalegin berezia eta oso urria den borondate politikoa eskatzen dituen erronka dela. Horregatik, egoera honek sortzen duen ezkortasunez atera nahian burura datorkit Eduardo Galeanori<sup>36</sup> utopiaz behin irakurritakoa, hau da, utopia horizontea bezalakoa dela; berari hurbiltzen gataizkion bakoitzean bera urrundu egiten da, eta inoiz eskuratuko ez badugu ere, gure bidean aurrera egiteko balio du. Beste modu batean esanda, utopiari ez diogu utopia esaten zerbait eskuraezina delako, aurrerapausuak ematen laguntzen digun helburua delako baizik.

## 8- Utopia eraikitzeak ahaleginetan

Utopiak, beraz, lagundu egiten digu aurrera egiten, kasu honetan bidezkoagoa, demokraziaileagoa eta gizakorragoa den horizonte baterantz. Baina etxe hori eraiki ahal izateko nazioarte mailan gaur egun ez dauden zutabe sendoak behar ditugu. Askok uste ez bezala irtenbideak ez dira zertan izan behar konplexuak, originalak, edo orain arte aplikatu gabeak. Adibide errez batetik hasita, laguntza ekonomikoa ez da inondik inora “giza-garapen sostengarria” lortzeko aurrera eramane beharreko birbanaketarako tresna bakarra, baina abiapuntu moduan urrats baliagarria izan daitekeelakoan nago. Hau Ongizate-Estatuak ezartzen zituenetako bat zen eta, beraz, aurretik ere hainbat herrialdetan, elkartasunari lehentasuna emanez, erabilitakoa izan da. Beste maila batean, eta

---

<sup>34</sup> BPG-aren %0,7 garapenerako laguntza ofizial modura (AOD delakoa) bideratzeko proposamena 1972 Nazio Batuen Elkarteko Asamblada Nagusiak onartutakoa izan arren, OCDE-ko CAD izeneko batzordeko lau herrialdek (Norvegia, Suedia, Danimarka eta Holanda) besterik ez dute betetzen gaur egun gomendio hori.

<sup>35</sup> Alde biko laguntza (gobernu batek beste herrialde batera zuzendutakoa) hedatuen dagoen modalitatea bada ere, kalitatearen aldetik txarrean dela hainbat adituk baieztatu dute behin baino gehiagotan. Oso urrun joan behar izan barik ere, FAD izeneko kredituen inguruan sortutako eskandalua aipatu beharra dago. Honek zera eman zuen ezagutzera, gobernu espaniarrak ustez beste herrialdeen garapena bultzatzeko kreditu bigunak eskeintzen zizkiela hemen ekoiztutako armen erosketa errezteko asmoz. Honi buruzko informazio gehiago Carlos Gomez Gil-en “España y la ayuda oficial al desarrollo: los créditos FAD” liburuan eskura daiteke.

<sup>36</sup> Eduardo Galeano (1993): Las Palabras Andantes. Siglo XXI de España Editores. Madrid.

hauen mitifikazioan erori barik, azken finean Europar Batasunak martxan ipinitako kohesiorako ekimenen atzean egon den filosofia antzeko zeozer izango litzateke ere.

Birbanaketaren aldeko esperientziak, beraz, ez dira berriak, baina nobedadea suposatzen duena, aldiz, egitasmo hau gauzatzeko esparrua da. Alegia, horrelakorik ez da sekulan mundu mailan aplikatu, eta horretan hain zuzen ere datza gizateriak arlo honetan duen erronka nagusia. Erronka honen bideragarritasunean behin sakondu nahi izanez gero bi elementu teorikoez baliatu beharrean gaude: herritartasun unibertsala eta mundu mailako demokrazia<sup>37</sup>.

Aurreneko kontzeptuak zerikusi handia dauka gizakion eskubideekin, herrialde batean edo bestean bizitzeagatik legediak edo araudiak eskaintzen dituen eskubideekin. Baina herrialde baten barruan eskualde bateko biztanleek beste eskualdeetakoek ez dituzten eskubideak edukitzeari guztiz zuzengabea iritziko geniokeen bezala, ezin al dira irizpide berak erabili mundu mailan?, populazioaren gehiengoaren bazterketa inposatzen duen sistema ekonomiko eta politikoa arbuigarria bada, hori edozein testuinguru eta esparru geografikoan izango da. Egun ezagutzen dugun “mundu mailako apartheid”<sup>38</sup> Hegoafrikan bere garaian zegoena bezain gaitzesgarria izan beharko litzateke.

Demokraziaren ardatz nagusietako bat herritarrek duten erabakitze ahalmenean datza, eta horren arabera, sistema demokratikoez dituzten akats eta hutsuneak epaituak izaten dira askotan<sup>39</sup>. Orainsu esandakoaren ildo beretik, benetako demokrazia batek gutxienez bermatuta izango lituzke gehiengoaren eskubide zein interesak, nazioarte mailan agertzen zaizkigun desberdintasunak testuinguru horretan ezinezkoak izango liratekeelarik.

Horrela, ideia hauek guztiek existitzen ez diren nazioarteko erakunde demokratikoen arazoa mahaigaineratzen digute. Non daude nazioarte mailan Estatu birbanatzailearen zeregina bere gain hartuko duten erakundeak?, non biztanlearen iritzia erabaki eta arau bihurtuko dutenak? Gaur egun

---

<sup>37</sup> Proposamen hauek Koldo Uncetaren zenbait lanetan aurki daitezke, besteak beste, “Mundialización económica, incertidumbre y democracia” edo “La globalización y los procesos de desarrollo: algunas relaciones básicas” izenburukoetan.

<sup>38</sup> Ideia interesgarri hau Robert Sutcliffe-k “Un derecho a desplazarse” izenburuko artikuluan erabilitakoa da.

<sup>39</sup> Ez dugu ahaztu egin behar demokraziaren kontzeptua beste asko bezain iluna edo zabala izan daitekeela esanahiaren aldetik. Kasu honetan, eta zorroztasun gehiegirik gabe, aipatzen ari garen demokrazia gutxieneko oinarritzko baldintzetan funtsatutakoa litzateke.

nazioarteko erakunde nagusien erabakiak herrialde bakoitzak egindako ekarpen monetarioaren araberakoak direla jakinda, lan handia geratzen dela egiteko begi-bistakoa da.

Azken aldi honetan etengabean entzuten dugun globalizazioaren dinamikak testuinguru desberdin batean kokatuko omen gaitu, hainbat arazo (ingurugiro, merkataritza, lan merkatu, edo inbertsioei lotutakoak) maila global horretan eztabaidatu eta erabaki beharko direlarik. Horretarako nazioartean bestelako ordena bultzatzen duten erakundeak ezinbestekoak dira. Lehiakortasun eta inposaketaren adierazgarria den globalizazioa elkartasunez eta elkarmenpeketasunez busti beharrean dago. Globalizazioak, munduko bazter guztiak hurbilago jarritz, planeta osoaren erreferentzia eskaintzen digu gure gogoetarako. Aprobetxa dezagun, beraz, dinamika honek ematen digun eremu berria globalizazio merkatuzale hori gizazaleagoa bihurtzeko.

Askotan xede hau gure eskuetatik kanpo geratzen delakoan gaude, baina partaidetza bultzatu nahi duen prozesu honen funtsa partaidetzan ere egon behar da oinarrituta. Eta partehartze hori gizarte mugimenduen eta hauek burutzen dituzten sentsibilizazio-kanpaina eta lobbying lanen bitartez egon behar da bideratuta. Era honetan, helburua eskuragarriagoa izateaz gain, egin beharreko lana ere eramangarriagoa izango da, zalantzarik gabe.

## **Bibliografía**

- AMIN, S. (1988): *La desconexión. Hacia un sistema mundial policéntrico*. Iepala. Madrid.
- ARRIOLA, J. (1988): *Los nuevos países industrializados. Transferencias tecnológicas y subdesarrollo*. Iepala. Madrid.
- BARBER, W.J. (1978): *Historia del pensamiento económico*. Alianza Universidad. Madrid.
- BERMEJO, R. (1994): *Manual par una economía ecológica*. Bakeaz. Los libros de la catarata. Bilbao.
- BERZOSA, C. (1991): *Los nuevos competidores internacionales. Hacia un cambio en la estructura industrial mundial*. Ciencias Sociales. Madrid.
- BUSTELO, P. (1992): *Economía del desarrollo. Un análisis histórico*. Editorial Complutense. Madrid.
- CHENERY, H. (1976): *Redistribución con crecimiento*. Banco Mundial. Tecnos. Madrid.
- FRANK, A.G.(1971): *El Desarrollo del Subdesarrollo*. Colección “Lee y Discute”, Serie V, nº 45. Zero S.A. Bilbao.
- GALBRAITH, J.K. (1987): *Ekonomiaren historia I eta II*. Gaiak. Donostia.
- GOMEZ GIL, C. (1994): *España y la ayuda oficial al desarrollo: los créditos FAD*. CIP. Madrid.
- HUNT, D. (1989): *Economic theories of development*. Harvester wheathsheaf. London.

- HIRSCHMAN, A. (1980): *Auge y ocaso de la economía del desarrollo*. Trimestre Económico n°188. México.
- MADDISON, A. (1991): *Historia del desarrollo capitalista. Sus fuerzas dinámicas*. Ariel. Barcelona.
- MARTINEZ ALIER, J. (1992): *De la economía ecológica al ecologismo popular*. Icaria. Barcelona.
- MARTINEZ ALIER, J. (1994): *Después de la Conferencia de Rio de Janeiro. ¿Mercadeo de la naturaleza o ecologismo popular?* En: *La economía mundial en los 90. Tendencias y desafíos*. Icaria: FUHEM. Barcelona.
- MEADOWS, D.H. y otros (1972): *Los límites del crecimiento*. Fondo de Cultura Económica. México.
- NAREDO, J.M. (1987): *La economía en evolución. Historia y perspectivas de las categorías básicas del pensamiento económico*. Siglo XXI. Madrid.
- PEARSON, L.B. (1969): *El desarrollo: empresa común*. Tecnos. Madrid.
- PNUD (1990-1997): *Informe sobre el desarrollo humano*. New York.
- RIECHMANN, J. (1995): *Desarrollo sostenible. La lucha por la interpretación*. En: *De la economía a la ecología*. Fundación 1º de Mayo. Madrid.
- RIECHMANN, J. y FERNANDEZ BUEY, F. (1996): *Ni tribuneros. Ideas y materiales para un programa ecosocialista*. Siglo XXI. Madrid.
- ROSTOW, W.W. (1993): *Las etapas del crecimiento económico. Un manifiesto no comunista*. Ministerio de Trabajo y Seguridad Social. Madrid.
- SEERS, D.; MEIERS, G.M. (1986): *Pioneros del desarrollo*. Banco Mundial. Tecnos. Madrid.
- SEERS, D. (1987): *La teoría de la dependencia. Una evaluación crítica*. Fondo de Cultura Económica. México.
- SEN, A. (1987): *The standard of living*. Cambridge University Press. Cambridge.
- STREETEN, P. (1986): *Lo primero es lo primero. Satisfacer las necesidades básicas en los países en desarrollo*. Banco Mundial. Tecnos. Madrid.
- SUTCLIFFE, R. (1992): *Desarrollo, redistribución y medio ambiente*. En: *Pobreza, desarrollo y medio ambiente*. Intermon. Deriva editorial. Barcelona.
- SUTCLIFFE, R. (1993): *Desarrollo humano. Una valoración crítica del concepto y del índice*. Cuadernos de trabajo, n°11. Hegoa.
- SUTCLIFFE, R. (1995): *Ecología política, n° 9*. FUHEM; Icaria. Madrid.
- TALAVERA, P. (1984): *Economía mundial y subdesarrollo*. Hacer. Barcelona.
- TAMAMES, R. (1974): *La polémica sobre los límites del crecimiento*. Alianza. Madrid.
- UNCETA, K (1996): *El hambre como fracaso del desarrollo*. En: *El incendio frío. Hambre, alimentación y desarrollo*. Icaria. Barcelona.
- UNCETA, K (1996): *Mundialización económica, incertidumbre y democracia*. En: *Sin certezas y con esperanza*. Instituto Diocesano de Teología y Pastoral. Bilbao.
- UNCETA, K (1998): *La globalización y los procesos de desarrollo: algunas relaciones básicas*. IV Jornadas de Economía Crítica. Málaga.
- VIDAL VILLA, J.M. (1976): *Teorías del imperialismo*. Barcelona.
- VIDAL VILLA, J.M. y MARTINEZ PEINADO, J. (1995): *Economía mundial*. McGraw-Hill. Madrid.